



RASFF TXOSTENA

ELIKAGAIAK


ALERTAK eta JAKINARAZPENAK

- ⦿ Alertak eta jakinarazpenen kopurua
- ⦿ Jakinarazpenen kategorizazioa
- ⦿ Antzemandako arriskuen jatorria
- ⦿ Antzemandako arriskuak
- ⦿ Azken urteen arteko konparazioa

2019ko URTEKO TXOSTENA ➤



ALERTA ETA JAKINARAZPENEN KOPURUA

2019an, Europako Alerta azkarra sistemaren (RASFF) bidez **3522 alerta eta jakinarazpen** jaso dira.



JAKINARAZPENEN KATEGORIZAZIOA



2019 urtean zehar, elikagaiei buruzko 3522 jakinarazpen izan dira. Horietatik, 1048 (%30) **alertak** izan dira, 1177 (%33) **informazio-jakinazpenak** eta 1297 (%37) **mugan egin diren ukapenak**.



ANTZEMANDAKO ARRISKUEN JATORRIA

Kutsatutako produktuen jatorriari dagokionez, urtean zehar, aipatu behar da **Europak (%45)** eta **Asiak (%27)** eragin dituztela jakinarazpen gehienak. Asia eta Amerika jatorria duten jakinarazpen kopurua jaitsi egin dira 2018 urtearekin konparatuz, Afrikakoak eta Europakoak, berriz, igo egin dira.



Urteko batezbestekoak hurrengoak izango lirateke:



ANTZEMANDAKO ARRISKUAK

Aurreko urtean bezalaxe, **kutsadura biologikoak** eragin ditu jakinarazpen gehien (**%29,55**). **Iruzurrak** dira jakinarazpen gehien sortu dituzten bigarren taldea (**%19**), pasa den urtetik igo direlarik. Kutsadura kimiko eta kutsadura fisikoen kopurua mantendu egin da. Hondakinena, aldiz, apur bat jaitsi egin da.


Hauek dira antzemandako arriskuei dagozkien urteko neurriak eta lauhilekoka izan duten bilakaera:




..... ANTZEMANDAKO ARRISKUAK

Kutsadura biologiokoaren kasuan, **Salmonela** nabarmendu behar dugu kutsadura biologikoen **%65,5a** eragin baitu, igo delarik.


Honako hau izan da kutsadura biologikoen izan duten joera:



Badira Salmonela espezie batzuk giza osasunerako arriskutsuak direnak (*S.typhimurium* y *S.enteritidis*) eta bestelako Salmonelak, azken hauek, **Salmonela exotikoak**, nabarmendu behar dugularik (**%80,5**). Urteko eboluzioa izan da:




MIKOTOXINEN kasuan, kasu gehienak (**%75**) **Aflatoxinek** eragin dituzte.




.... ANTZEMANDAKO ARRISKUAK

Pestizida eta botiken hondakinei dagokionez, urteko batez bestekoa kontutan hartuz, **pestizidek %82a** suposatu dute eta **botiken hondakinak %18a**.

Urteko eboluzioa hurrengo hau izan da:



MERKURIOA jarraitzen du **metal astunen** protagonista izaten **%48**arekin.



AZKEN URTEEN ARTEKO KONPARAZIOA

